


# Bake-bidean geure burua nezi



Euskal Herriko  
**BAKEAREN ALDEKO**  
Koordinakundea

# Euskal Herriko


## BAKEAREN ALDEKO

# Koordinakundea

Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Sailaren laguntzaz argiratu da,  
Giza Eskubideen ardularitzaren babespean.



 [gesto@kender.es](mailto:gesto@kender.es)

 [www.gesto.org](http://www.gesto.org)

Bizkaia:  10.152 48080 **bilbao**  944 16 39 29  415 32 85

Alava:  2.063 01080 **vitoria-gasteiz**   945 22 68 38

Gipuzkoa:  5.005 20080 **donostia**   943 21 09 06

Navarra:  176 31080 **iruña-pamplona**   948 22 31 35

# 1. Sarrera

2000. urtea, "Bake kulturaren nazioarteko urtea", bukatu berria den honetan ezinbestekoa zaigu hau ez dela amaiera puntu bat izan gogoraraztea, miliurteko berri honen hasieran gizateriak esku artean duen erronkarik handiena gauzatu eta garatzeko beharrezkoa zaigun bultzada sendoa baizik.

Edozein gizarte bere belaunaldi berriak ohiko balreetan sozializa daitezen saiatzen dela kontuan izanik, belaunaldi berri hauek, gaur egun, biolentziaren kultura osatzen duten kontrabaloreak gizarteari berezko zaizkion balore bezala barneratzeko arriskua dago. Honexegatik argi dakusagu edozein gizartek Bake Kultura garatu behar duela, bereziki biolentziarekiko harreman estuagoa bizi dutenek.

Motibazio honetatik **Euskal Herriko Bakearen Aldeko** Koordinakundeko Bake-bidean Hezi Batzordeak bakerako hezkuntzaren inguruko hainbat gogoeta biltzen dituen txosten hau aurkeztea erabaki du. Hainbat gogoeta, bake kulturaren kontzeptua oinarritzat izanik, bakerako hezkuntzari buruzko ikuspuntu zehatz bat garatzen dutenak, hiru aportazio zehatzen bidez: bere espezifikotasuna giro familiarrean, eskola giroan eta gure herriaren egoera konkretuan. Ez dago dudarik badirela garrantzitsuak diren beste hainbat giro, esaterako unibertsitatearena edo arautu gabeko irakaskuntzarena,

baina gogoeta hau motz eta konkretuagoa egite aldera lehen aipaturiko sektoreetara mugatzea erabaki dugu.

Dokumentu honen asmoa urteotan landu eta ikasi dugunaren sintesi bat biltzea da, modu labur baina osatuan. Gogoeta honek ez dakar egungo bakerako hezkuntzaren lerro nagusiekiko berrikuntza handiegirik, baina bai gure ikuspegi eta esperientziak ezarri dizkion ñabardura eta intentsitate espezifikoak. Zentzu honetan ezinbestekoa gertatzen zaigu, beste askoren artean, Xexus R. Jares, Federico Mayor Zaragoza edo Xabier Etxeberriaren izenak, hala nola APDHren Bakerako Hezkuntza Mintegiak bezalako taldeak aipatzea, berauen lanak gai honetan errekonozitu eta eskertzea nahitaezko zaizkigunak.

Laburtuz, NBEk "biolentzia ezaren eta Bake Kulturaren hamarkada" deklaratu duen miliurteko berri honen hasieran, agiri honek zera izan nahi du, soil-soilik, bake hezkuntzarako komisioren ekarpen bat, ziur baikaude bakerako hezkuntza oinarrizko eta ezinbesteko instrumentu bat izango dela kultura berri honen garapenerako, mundu berri hori lortzeko.

## 2. Bake kultura

### 2.1. Kultura berri bat

**U**NESCOren fundazioaren agirian zera dio: "Gudak gizonen buruetan jaiotzen direnez, gizonen buruetan eraiki behar dira bakearen gotorlekuak". Hain zuzen ere, honekin zera gogorarazten da, biolentzia zerbait kulturala dela, zerbait jaso, sortua, eta hainbat balore berri indartu

behar ditugula errealitate hau atzean utzi eta eraldatzeko.

Lehen gizakietatik ikasia dugu edozein gizartetan mementuko belaunaldiak belaunaldi berriak ahalik eta min gutxienean sozializatzear arduratu behar direla, hau da bizi diren gizartean sarrarazi behar dituztela. Edozein hezkuntza, honenbestez, gizabanako berri horiek gizarte jakin horretan gailentzen diren baloreetara moldatzeko saiakera bat da. Jaioak izan garen gizarte jakin honetan, berau osatzen duten gizataldeetan integratuz, geure izaera, zeregin jakin batzuk eta munduaren ikuspegi doi bat eratuz joango gara.

Belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren balore hauek ezin dira inolaz ere neutrotzat jo, denbora historiko jakin batean lekukuriko gizarte jakin bati baitagozkio. Gainera, pertsonak ez du jasoko erakutsirikoa soilik barneratzen, baita bere nagusien behaketatik ikasten duena ere, haurtzaro eta nerabezaroan, batik bat. Eguneroko elkarren arteko harremanak aztertzen baditugu ez zaigu zail gertatuko gure gazteriak etnozentrismoa, elkarlehia, indibidualismoa, intolerantzia, norberaren berezitasunaren balorazio exageratua, ... bezalako kontrabaloreak bizi diren gizarteari berezko zaizkion balore bezala barneratzeko arriskua onartze.

Argi dago bortizkeria beti present izan dela historian zehar, bai lehen bai orain ere, dela guda eta konfliktoen modu zuzenean, dela gosete, diskriminazio, analfabetismo, langabezia, naturaren edo pertsonen ustiaketa egoerek beren baitan daramaten biolentzia estrukturalaren moduan. Biolentziaren iraunkortasun honek, dagoeneko eragin dituen biktimez gain, berekin biolentziaren kultura bat dakar, guzti guztia kutsatzen duena, gure izaera eta harremanetatik hasi eta estatuen aurrekontuetaraino, komunikabide, lantegi, kirol eta gazteen jolaste eta dibertitze moduetatik pasaz. Esan daiteke guztiok gaudela, modu batean ala bestean,

indarkeriaren kulturari eusten dioten kontrabaloreek kutsatuta: bortizkeria erabiltzearen justifikazioa; "bestea" (atzerritarra, edo besterik gabe ezberdina dena) mehatxu edo areriotzat jotzea, talde kontrajarrietan kokatzera bultzatzen gaituena; indibidualismoa; logika ekonomizistak bultzaturiko muturreko elkarlehia; sexu edo arrazagatiko diskriminazioa; intolerantzia; deshumanizazioa ("bestea" objektutzat jotzea); egia absolututzat sorturiko ideologia baztertzaila eta itxiak; militarismoa; edo axolagabetasuna besterik gabe. Eta hau guztia ziurtasun eta bakearen garante bakarra Estatua den gizarte batean.

Kultura honen aurrean beharrezkoa da benetako Bake Kultura bat garatzea; horretarako ezinbestekoa da edozein gizartetan, balore berriak indartuko dituen hezkuntza mugimendu garrantzitsu bat, pertsona ororen duintasuna bermatzen duen oinarritzko printzipioa sostengatuko duten jarrera eta jokabideak bultzatuz: biolentziaren erabileraren aurrean, bizinari, pertsonen integritateari eta giza-eskubide guztiei errespetua; elkarlehiaren aurrean, maila guztietara hedaturiko kooperatibitatea; konformismoaren aurrean, injustizia iraunarazten duen orori kritika egin eta men ez egiteko gaitasuna; indibidualismoaren aurrean, norberarenak ez diren planteamenduak ulertzeko eta onartzeko gaitasuna; mehatxu eta jazarpenaren aurrean, pertsona guztien askatasuna; diskriminazioen aurrean, pertsona guztien aukera berdintasuna aldarrikatu, sexu, arraza edo izaerei begiratu gabe; gatazkak bortizkeriaz konpondu beharrean, elkarrizketa instrumentu oinarritzokotzat aldarrikatu; ideologia itxien aurrean, aniztasuna dibertsitatea errespetatzen duen ondare aberasgarritzat jo. Hitz batean intolerantziaren aurrean tolerantzia defendatzean datza.

Kultura berri hau garatzeak zera eskatzen du, gizarte zibil bizi eta aktibo bat bultzatzea, non hiritarraren

kontzeptua aldarrikatu ahal izango dugun, hau da, benetako hiritarrak, guztion ongizatearekin, garapenarekin, bakearekin eta benetako demokrazia partehartzaile batekin konprometituak, eta ez XXI. mendeko kontsumitzaile hutsak. Edukiera etiko eta gizatiar handiko gizarte zibil bat, koherentziaz, proposatzen dituen baloreak obratuko dituen.

## 2.2. Bakea eta gatazka

**B**adira bi kontzeptu giltzarri direnak Bakearen Kulturari ekitean modu egokian tratatu beharrekoak. Kontzeptu hauek bakea eta gatazka dira.

Lehenik eta behin, bada kontzeptu oker bat bakearen inguruan honako hau dioena: bakea bortizkeria zuzen edo gatazka belikoaren falta dela. "Hilerrietako bakea" ere deitua izan den bakearen definizio murrizt honen azpian, maiz, injustizia handienak ezkutatu izan dira, giza eskubiderik oinarritutako zapalketan oinarrituak.

Bakerako hezkuntzak esku artean darabilen bakearen definizioa askoz aberatsagoa da, beronek biolentzia zuzenaren gabeziak gain, estruktura injustuak iraunarazten dituen biolentzia estrukturalaren maila gutxieneko edo ezereza exigitzen ditu. Era berean, biolentzia kulturalaren desagerpena ere eskatzen du, inongo kultura ez baita besteren ginetik gailendu behar, dela kantitate arrazoiegatik (datu objektiboa: gehiengoak gutxiengoaren ginetik), dela arrazoi kualitatiboengatik (datu subjektiboa: norberaren espezifikotasunaren gainbalorazioa).

Hitz batean, bake positiboa bilatzean datza, kontzeptu zabalago eta handinahiago, dinamiko eta

prozesualagoa izanik, pertsona orok, justizia eta berdintasun egoeran, bere aukera guztiak garatzea bilatzen duena.

Bestalde, gatazka hitzak eragiten duen gaitzespena kontuan izanik, eta arazoa Bake Kulturarako hezkuntzaren ikuspegitik aztertzen dugunean, benetan osotasunean onartzea beharrezkoa dela deritzogu: giza izateari berezko eta funtsezko zaion errealitate bezala. Gure eskumenean dagoen instrumentu bat besterik ez da, ongi erabiliz gero geure garapen pertsonal zein sozialerako erabilgarria dena.

Gatazka positibo edo negatibo bihurtzen duena ez da auzia bera, guk hari eusteko dugun gaitasuna baizik, ezen ikuspegi ezberdinak geureganatuz eta onartuz sortzailea izango baita; biolentoa izango da, ostera, bestearen jarrerak gaitzesteaz gain bestea bera ere gutxietsiz gero. Tamalez amaitu berri dugun miliurtekoa azken aukera honen adibideez josirik dago.

Kontua ez da, beraz, gatazkarik ez balego bezala jokatzeko, beraiei buruzko informazioa lortzea baizik, honela analisi egoki bat egin ahal izateko, beren errealitatea kritikoki argituz, eta euren aurrean postura kontrajarriak hartzera bultzatzen gaituzten beharrian gizatiar eta sozialak agerian utziz. Honela soilik lortuko dugu gatazkek modu sortzailean eta ez-biolentean bukaraztea.

Arrazoi honexegatik beharrezkoa da elkarrizketaren kultura bat bultzatzea, ezinbestekoa baita aniztasunetik eraiki nahi den gizarte batean sortuko diren gatazka eta ezadostasun logiko eta aberasgarriak konpontzeko orduan. Baina elkarrizketa honek onartu beharreko kostu bat du, egiazkoa eta emankorra izango bada.

Lehenik eta behin bestearen jarrerarekiko gerturatze bat egin behar da, ahalegin zintzoa eginez haren errealitatea



hobexego ezagutze aldera. Bide honetan ezinbestekoa da aurretiaz ipini ditugun "etiketa" guztiak atzean uztea. Bigarrenik, besteak dioenari ohikoa duguna baina seriotasun eta konpromiso handiagoz entzun behar diogu. Hau da, enpatia luze-zabala izan beharko dugu, beste pertsonaren lekuan jartzeko esfortzua egin beharko baitugu, geure errealitate konkretu subjektiboak mediatizaturiko aurretiazko juzkurik gabe. Azkenik, ausardia ere ezinbestekoa da, zatika behintzat, amore ematen jakin beharko baita. Egiaz akordio batera helduko bagara, honexek berak geure interes eta eskakizunei muga jartzera bultzatzen gaitu.

Prozesu honetan guztian garrantzi handiko elementua da hizkera. Hizkuntzaren bidez, gehienetan zeharka bada ere, estereotipoen transmisioa bidaltzen dugu. "Kode deontologiko" moduko zerbait beharko genuke, hizkuntzari, ahal den neurrian bederen, gaitasun negatibo hau kentzeko, batik bat Bake Kulturaren indartzeari begira.

Zentzu honetan, arazo hau guztiz argi manifestatzen den bi errealitate daude. Alde batetik, beste etnia edo arrazekiko hizkuntza baztertzaila, euren banakotasuna degradatzen duten espresioen bidez. Bestalde, hizkuntza sexista, gizonetzkoa emakumezkoaren gainetik ipintzen duena, dela akzioz dela omisioz. Azken arazo hau gainditzeko gero eta zabalduagoa dagoen hizkuntza koedukatioaren alternatiba garatu behar dugu.

Arazo honetaz ari garela, komunikabideei dei bat helarazi behar diegu, hizkuntzaren erabilera erantzunkizun handiagoz har dezaten, esamolde oldarkor eta estereotipatuak alde batera utziz.

Hitz batean, ikuspegi honetatik gatazkak dimentsio eta garrantzi berriak hartzen ditu, gizakien arteko harremanen

elementu dinamiko ezinbestekotzat eta pertsonen, gizartearen eta hezkuntzaren garapenerako faktore interesgarri bezala. Gatazkei aurreikuspenetik eta eraldaketa positibotik heltzeko gaitasuna lortzea da erronka, sormena eta ez biolentzia erabiltzen ikasteko gaitasuna lortzea, hain zuzen ere.

## 3. Bakerako Hezkuntza

---

### 3.1. Zeregin konplexu, iraunkor eta osoa

---

**E**z dago dudarik Bake Kultura berria lortzeko orduan hezkuntza berebiziko garrantzia duen instrumentu bat dela, aldarazteko bere gaitasun handiagatik. Baina sarritan modu oso murriztuan erabiltzen da, eskolaren ingurura soilik mugatuz. Zentzu honetan bi gauza azpimarratu beharrean gaude: batetik, eskola ez da hezkuntza agente bakarra, bestetik, ez dira gazteenak soilik bakerako hezi beharrekoak. Hezkuntza, bere osotasunean hartuta, eskolarizazio hutsa baino askoz gehiago da, gizartearen kide guztiei eraginez bizi osoko iraupena duen prozesu bat, alegia.

Alde batetik bakerako hezkuntza oso prozesu konplexua da, dituen tarteko guztiengatik, parte hartzen duten agente guztiengatik, gehienak, gainera, hezkuntza-ingurunetik kanpokoak:

- ◆ Instituzioak, biziko garen gizartea diseinatzeko ardura dutenak.
- ◆ Alderdi politikoak, batzuetan arduratuago boterearekin eta hauteskunderen emaitzekin, gizarte demokratiko batean duten abiapuntu izatearen erantzukizunarekin baino, baita bake kultura baten balore eta jarreraren indartzeari dagokionean ere.
- ◆ Hedabideak, izugarrizko eragina dute guztiengan,

eta tamalez, sarriegi gainera, dela albisteen tratamenduaren bidez, dela pelikula edo programen bidez, bakearen kontrabaloreen eramale.

- ♦ Familia, zein bakerako hezkuntzarako ingurunerik egokiena izan daitekeen, eta halaxe behar duen, nahiz eta maiztxo hain zuzen kontrako bihurtu, bere kideak, batez ere gazteenak, sakonki markatzen dituzten jarrera eta giro intoleranteak sortuz.

- ♦ Eliza, bakearen eramale beti izan beharko lukeena, bai bere aldarrikapenetan eta baita bere zereginik ohikoenetan ere.

- ♦ Kirol eta kulturaren arloko aitzindariak, onerako edo txarrerako pertsona askoren jokamolde eredu direnak, gazteenak batik bat, erreferenteak hain beharrezko zaizkien garai horretan.

- ♦ Elkartek, mugimendu sozialak, GKEak, ... berauen lan hasiberri eta indarberritua esperantzarako eta kemen demokratikorako arrazoi direnak.

Honenbestez eskola ez da hezkuntza eragile bakarra, eta sarritan bere bakerako hezkuntzarekiko erantzukizuna korrontearen kontrako lan bihurtzen da.

Bestalde, bakerako hezkuntza ez da pertsonarik gazteenen beharrezko soilik. Argi eta garbi dago eurak direla geure munduaren etorkizuna, eta jaurtitzen zaizkien baloreekiko iragazgarriagoak direnez gero beraiengana zuzenduriko lana garrantzitsuagoa dela. Hala ere gizarteak bere osotasunean Bake Kulturaren baloreetan hezteko beharra du, hainbat balore konkretuekin bizi eta elkarbizitzera ohitu baita, non ia konturatu gabe bere egin eta barneratu egin dituen. Hezkuntzan lan egiten dugunok ahalegin berezi bat egin behar dugu bake eta tolerantzia balore hauetan hezteko, ezen inondik ere zail gertatuko baitzaigu bizi ez dugun zerbait beste inori irakastea.

Bake-bidean Hezi, beraz, zeregin iraunkor, ohiko gisa aurkezten zaigu, hainbat dimentsiotatik garaturik pertsona guztiei zuzentzen zaiena, gizarte guztia bere gain hartuz, angelu ezberdinen ikuspegiez osatzen dena, ondorioz zeregin benetan konplexua bihurtuz.

## 3.2. Bake-bidean Hezi: ildo nagusiak

**B**akerako hezkuntza joan den mendean zehar gauzatuz joan da. XX.mendeko gudaldi handien ondoren, bi mundu gerra, bizi izandako egoera inhumanoak saihesteko txerto baten beharra ikusten da. Honela bada 20. hamarkadaren amaieran eta 30. hamarkadaren hasieran etorkizuneko belaunaldiak hezteko modu berriak bilatzen zituzten mugimendu pedagogiko nagusiak sortu ziren, Eskola Berria hezkuntza mugimendua aitzindaria izanik. Aipatzekoak dira, beste hainbat saiakera interesgarriren artean, María Montessorirena, Lorenzo Milanirena Barbianoaren eskola edo Arthur Neillena, Summerhill eskolaren sortzailearena. Azken bi hauek eskola eredu kritikoago bat bultzatu nahi zuten proiektuak ziren, gizakiaren jaiotzatiko beharrianak gehiago eta hobe lantzeko. Gerora, Paulo Freire bera ere aipagarria da, gaur egun arte Bakerako Hezkuntzaren erreferenterik garrantzitsuenen bihurtuko zena.

Bigarren Mundu Gerraren ostean beste bide bat irekitzen da, munduaren antolamendu berri bat aldarrikatuz ejerzitorik gabeko mundu bat bultzatu nahi duten mugimendu antimilitarista nagusien eskutik. Bultzada honek bakearen eta biolentziarik ezaren aldeko mugimenduak abian jarri eta Bakerako Ikerketaren jaiotza eta sendotzea ekarriko du, oraindik ere indarrean dagoena.

Bi ildo hauen batzetik eta UNESCO bezalako beste erakunde batzuen aportazioen eskutik sortu da Bakerako Hezkuntzaren korrontea.

Edozelan ere, ez da erraza Bakerako Hezkuntzaren definizioa ematea. Nonbaitetik hastearren Xexus R. Jares adituaren ideia batetik abia gintezke, "prozesu hezitzaile, etengabe eta iraunkor bat, bi kontzeptu definitzaileetan oinarritua, bake positiboaren kontzeptua eta gatazkaren sormenezko ikuspegia, hala nola metodo arazo-eragileen bidez kultura berri bat eratu nahi duena, Bake Kultura, alegia, pertsoneri errealitate konplexu eta gatazkatsua, kritikoki aztertzen lagunduko diena, bere aurrean jarri eta nor bere pentsamoldean jokatzeko ahalbidea emango diena".

Bi oinarri hauetatik abiatuz, bake positiboa eta gatazkaren sormenezko ikuspegia, Bakerako Hezkuntzak hainbat lan lerro ditu, denak garrantzitsuak eta elkarren artean lotuak. Esate baterako:

- ◆ Baloreetan hezkuntza: Bake Kulturarekin bat datorren bizimodua zuzentzen duten baloreak modu koherentean irakasteaz arduratuko litzatekeena.

- ◆ Munduari begirako eta kultura anitzeko hezkuntza: Aniztasunari errespetua eta ezberdina denaren onarpena irakasteko, jarrera arrazista eta xenofoboak ezabatuz.

- ◆ Desarmerako eta antimilitarismorako hezkuntza: Logika militarra eta egungo ziurtasunaren kontzeptu klasikoa ezbaian jarrarazteko eta izugarritzko gastu militarrek salatzen milioika pertsona gosez hiltzen diren bitartean.

- ◆ Giza eskubideetarako hezkuntza: Guztion elkarbizitza bideratzeko gutxieneko etikoak beharrezko direla irakasteko.

- ◆ Gatazkarako hezkuntza: Pertsonen elkarbizitzari berezko zaion zerbaitzat ikusten ikasteko eta konpontzeko beharrezko diren instrumentu positibo eta bakezaleak gara ditzagun. Zentzu honetan beharrezkoa da ikuspegi sozioefektiboa, hau da bestearen egoeran jartzeko jarrera garatu behar dugu (bestearen atorra jantzi), enpatia indartu, alegia.

- ◆ Garapen eta elkartasunerako hezkuntza: Pertsona indibidualistak izan beharrean ikuspegi kolektibo batez jokatzeko ikas dezagun, ezberdinkeria eta baztertze soziala piztu beharrean, gizaki guztiontzako justizia helburu bilatuko duena.

- ◆ Desobedientzia eta konformagaitz izateko hezkuntza: Axolagabekeria eta errealitatea saihestu ezin den zerbaitzat hartzeko jarreraren orde, injustiziaren aurrean matxinatu eta aldarrikapen eta borroka modu berriak bilatzeko jarrera indartu, euren artean kontzientzia kritikoak sortutako erantzukizuneko desobedientzia, besteak beste.

- ◆ Ez-biolentziarako hezkuntza: Zera erakutsiko diguna, biolentziarik gabeko moduak ez direla soilik zerbait aldarrikatzeko forma berezko eta legitimoenak, badutela beren baitan bizimodu, bake eta harmonia pertsonalaren sortzaile gisa balore propio bat ere.

- ◆ Hiritarrentzako hezkuntza: Hiritar erantzule eta kritikoak garatu ahal izateko, benetako demokrazia partehartzailea eta denontzat berdina den batekin konprometituak.

## 4. Familiaren esparruan

---

**P**ertsonen hezi-bidean familiak ezbairik gabeko garrantzia du, umeei bertan ematen baitituzte sozializazio prozesuaren lehen urratsak. Zentzu

honetan, beraz, gurasoen jarrera erabakikorra izango da, ikasketa sozial honetarako berehalako eredu diren aldetik, eta ikasketa hau bizipenen bidez batik bat, eskuratzen den bitartean. Hau da, ikasketa hau zuzenean bizipen propioz edota ereduaren bidez barneratzen da, umeak gurasoen jarduera behatuz, alegia.

Hain zuzen ere, haur batek bizi duena azkarrago eta hobe ikasiko du izaera moralizantedun esaldiekin transmititzen zaiona baino, beharrezko gertatzen delarik esaten denaren eta egiten denaren arteko koherentzia: tolerantziatik soilik hezi daiteke tolerantzian.

## 4.1. Bake-bidean heztearen ohiko ildoak

**H**onenbestez beharrezkoa da, famili giroan bakerako hezkuntza indartu nahi izanez gero, balore koherenteak eguneroko jardueren bidez transmititzea. Hauek dira ohiko ildo hauetariko batzuk:

- ♦ familiaren barnean sortzen diren auziei ez ihes egin, baizik eta aurre, elkarrizketa oinarrizko erremintatatzat joz.
- ♦ Familiako kideen sormen gaitasunak aintzat hartu eta bultzatzen ikasi.
- ♦ Norberaren zein seme alaben mugak eta akatsak onartzen ikasi.
- ♦ Familiako kideen, eta bereziki anai-arreben arteko alderaketak saihestu, hauek zentzu degradante edo diskriminatzailea dutenean.
- ♦ Erabakiak familiako ikuspuntu guztiak kontuan izanda hartu, beti ere ahal den neurrian akordiora heltzen saiatuz.
- ♦ Egoera honetara heltzen lagunduko diguten

estrategiak landu, esate baterako besteari aktiboki entzunez, ulertzen saiatuz eta empatia bultzatuz, batez ere belaunaldien arteko gatazkak sorrarazten dituen zailtasunak gainditzeko.

- ◆ Seme-alabei gaitasun kritikoa eman, gurasoen aldetik zein beste edozein bidek helarazten dien informazioa baloratu ahal izan dezaten.

- ◆ Familiaren baitan kooperazio eta laguntza giroa sortu, konpetitibitatea bultzatu beharrean.

- ◆ Arazo familiarren aurrean pertsona bera epaitu beharrean, bizi izan duen egoera epaitu, degradaturik eta bere autoestimuan zauriturik senti ez dadin.

- ◆ Hizkuntza zaindu, familian bizi eta transmititu nahi ditugun baloreekin bat joan dadin.

- ◆ Apurka-apurka familiako kide bakoitza bere garapen etapari dagozkion erantzukizunekin hornitu.

- ◆ Laburbilduz, ezinbestekoa da pertsonengan balorazio positiboaren eta errealitatearen egokituriko autokontzeptuen bidez autoestimua bultzatzea.

## 4.2. Arauen betebeharra familiaren elkarbizitzan

**A**zaldu berri dugun hezkuntza malguago honek ez du esan nahi hezkuntzak berak mugarik izan behar ez duenik. Guztiz kontrakoa hain justu ere, ezen sozializazioa egokia izan dadin famili taldea baita umeak taldeak ipintzen dizkion arauen mugak ikasteko duen esparrua, gerora egoera hau estrapolatzen jakin dezan, gertueneko kasuan klaseko taldera lehenik, eta gizarte osoko taldera azkenik. Sozializazio prozesuan ezinbestekoa da araudiak elkarbizitza antolatzen laguntzen diguten instrumentu bezala ikusten ikastea, eta ez debeku sistema huts bezala.



Honengatik guztiagatik beharrezkotzat jotzen dugu araudiak akordio bidez lortzea, familiako kide bakoitzaren eskubide eta zereginak bermatzeko helburuarekin ezartzen direla ulertuz.

Seme-alaben hezkuntzak berezko duen konplexutasuna onartuz, nahitaezkoa da ezinbesteko autoritatearen erabileraren eta bilatzen dugun hezkuntzaren izaera malgu eta partehartzailearen arteko oreka erdiestea, bi muturrak saihesten saiatuz, bai autoritarismo hutsean erortzea, zeinek familiaren baitan biolentzia estrukturalaren existentzia esan nahiko bailukeen, bai kriteriorik gabeko permitibitatea, edozein jokabide ontzat eman eta beharrezko mugak ez ikustera garamatzana.

### 4.3. Hezkuntzaren eta jolasaren arteko harremana

**H**ezkuntzak bizipen izaera duen aldetik, jolasarekin zerikusia duen orok garrantzi handia hartzen du. Denbora libre nola bete, zertara eta zerekin jolastu erabakitzea, oro har erreflexuzko edo ohikeriazko gauza dena, baloreen ikasketa eta sozializazioan garrantzi handiko elementua da.

Zentzu honetan garrantzizkoa da gurasoak hezkuntzaren izaera ludiakoan parte hartzearen beharrezkotasunaz ohartzea, dela jostailu eta jokuak aukeratzeko orduan, dela aisialdiko denbora beraien seme-alabekin partekatu ahal izateko espazioen bilaketan.

Sarritan joku zein jostailuek hainbat rol betetzen dituzte, hain zuzen bizi garen gizartearen joera eta errealitate injustu eta ezezkoaren islada direnak: hainbat talde sozial

besteen artetik gailentzea, edota sexu bat bestearekiko gailentzea; zintzo eta gaiztoen arteko bereizketa; hainbat zeregin emakumezkoentzat berezkoztat jotzea; biolentzia zenbaitetan baliabide bakartzat erakustea... Bestelako baloreetan hezi nahi badugu, geure haurrengan kontrabalore hauek errepikatu ez daitezen saiatu behar dugu. Honetarako jostailu eta joku konpetitibo, beliko, sexista eta sofistikatuen aurrean kooperatibitatea, biolentziarik eza, sexismoaren bazterketa, irudimen eta ekologismoa bultzatzen duten forma ludiko alternatiboak proposatzen ditugu.

Azkenik eta bideojoku, telebista edo internet bezalako teknologia berrien inguruan, honakoaz ohartu behar gara, garrantzi handiko hezkuntz elementuak direla, hortaz, gurasoek bide hauetatik seme-alabek jasotzen duten informazioaren ezagutza zuzena izan behar dutela. Ezagutza hau, alde batetik, eskeintzen diren bideojoku eta web horrietan nola umeak egunero telebistaren aurrean eta konektaturik pasatzen dituen orduen kontrolean zehaztu behar da. Medio hauen neurrigabeko erabilerak edo gaitasun kritikorik gabeko eta gehiegizko permitibitateak introbertsioa, indibidualismoa, konpetitibitatea edo jarrera bortitzak eragin ditzake, baita gizartean ikus daitezkeen ezezko rolak eurenganatzea ere.

## 5. Eskolako giroa

---

### 5.1. Irakasleen konpromisoa

---

Lehenago esan dugun bezala, hezkuntza eskolako ingurunea baino askoz gehiago dela egia bada ere, honek zeresan berezia du pertsona gaztearentzat,

formaziorako leku pribilegiatua den aldetik. Honegatik atal berezi bat emango diogu.

Hezkuntzaz ari garenean sozializazio prozesuaren elementu batez ari gara, errealtatearen eraikuntza sozialaz, umeentzat dagokien gizartean baliozko diren hainbat balore, jarrera, arau eta ohitura barneratzea suposatzen duena. Baina argi dago gailentzen diren balore horien guztien artean batzuk (konpetitibitatea, moral bikoitza, indibidualismoa, intolerantzia, esplotazioa...) eta beraietatik eratorriak diren arau eta jarrerak, Bakerako Hezkuntzak bultzatu nahi dituen baloreei zeharo kontrajarririk daudela. Hau dela eta, hezkuntzan lan egiten dugun guztiok heziketa ezin dela ekintza neutroa izan gogoratzeko beharra dugu. Argi izan behar dugu nolako gizarte eredu eta pertsona mota bilatu eta nahi dugun, helburu honekin profesional gisa ezezik pertsona bezala ere konprometituz. Ez baitatza gizarteak ematen dizkigun baloreetarako eta baloreetan heztean, balore hauetatik bake kultura bati eutsiko dioten balore berrietarako heztean baizik. Azken finean ez baita biziitzea suertatu zaigun mundu honetara moldatuta eta ohituta, baizik eta gizakiok egunez egun aldatzen dugun mundu hau positiboki eraldatzeko heztean. Bakerako Hezkuntza, honenbestez, zera da, geure gazteengan indarkeria ez erabiltzera bultzatuko dituzten baloreak sortzea, mundu zuzen eta solidarioago batengatik lan egitera bultzatuko dituztenak, pertsonen jatorriak eta izaerak alboan utzita, onartzera bultzatuko dituztenak, gerrak eta berauek sortzen dituzten gastu militar izugarriak baztertzerako eramango dituztenak, gizakien artean berdintasun eta senidetasunezko harremanak sortzerako bultzatuko dituztenak, eta abar. Hitz batez, gizarteak ematen dizkigun balore askori Bakerako Hezkuntzaren baloreak gainezartzea. Ezbairik gabe zeregin honek, hezkuntza honek, bakerako hezkuntza honek, irakasleen konpromisoa eskatzen du.

♦Lehendabizi, programatzeak eta hezkuntz zentruan zein hezkuntz aktibitatean garatzeak eskatzen duen lan eskergarengatik (puntu hau aurreraxeago aztertuko dugu).

♦Bigarrenik, balore hauek transmititu ahal izateko bizi egin behar direlako eta praktikan jarri. Hau da, irakasleak, gizartearen zati den aldetik, ezin du eragotzi balore gainezarle hauek neurri handiago edo txikiagoan bere baitan bizitzea. Horrenbestez, beharrezko du berak ere bake eta tolerantzia hezia izatea, eta balore hauek bere egitea bere eguneroko bizitzan. Ikasleek eredu eta erreferenteak aurkitu ahal ditzaketen ingurune bat behar dute, hala irakasleengan nola zentruko beste langileen artean ere, baita, azkenik, zentruko elkarbizitza antolatzeke moduan ere. "Curriculum ezkutu" bezala ezagutzen dena da hau, hots, balore hauek koherentziaren bidez transmititzen dira, praktika eta ereduaren bidez, ez baita esaten denaren bidez hezten, egiten denaren bidez baizik; ez baita entzuten denaren bidez ikasten, ikusi eta bizi denaren bidez baizik.

♦Hirugarrenez, hezkuntz zeregina irakaste hutsa izan ordez, bide bakarreko ekintzaren ordez, non ikasleak irakasleak erakusten diona soilik bereganatzen duen, Bakerako Hezkuntzak ekintza interaktibo gisa ikusten duelako, non bi partaideak eraldaketaren sujetu baitira. Ikasgelak kooperatibo eta partehartzailea behar du izan; bertan ikaslea bere ikasketa prozesuan inplikaturik sentituko da eta irakaslea curriculum intelektual eta kritikoaren eragile sortzaile izango da.

Bakerako Hezkuntzak aurrera eraman nahi duenaren konpromisoa eskatzeko arrazoi hauek eta beste batzuez gain, geure ingurunean, badu beste arrazoi bat, lehenago ere aipatu duguna: geure herrian aspalditik pairatzen dugun bortizkeria zuzenaren aurrean jarrera eta agerizko iritzi bat hartzeko zailtasuna. Urte luzeetan zehar Euskal Herrian Bake-

bidean Hezik ez du estatuko beste hainbat lekutan bezainbesteko indarririk hartu. Aurrera atera diren ekintza gutxiak inizatiba indibidual eta unean unekoen ondorio izan dira, eta ez zentru bakoitzaren hezkuntz proiektuaren baitan programaturiko eta planifikaturiko ekintza legez.

Gaur egun eginkizun hau, hainbat girotan zailtasuna oraindik oso handia izan arren, gero eta gehiago ari da garatzen. Hau hainbat hezkuntz instituziok, Renovación Pedagógica besteak beste, berdinen arteko elkarbizitzaren eta biolentziaren inguruan eginiko hausnarketari zor zaio, hala nola hezkuntzarako errekurso berrien agerpenari eta irakasleen gero eta kontzientziazio handiagoari.

## 5.2. Bake-bidean Hezi: zehar lerroa

**A**ipatu dugun lehen arrazoiria bueltatuz, konplexua da irakasleentzat LOGSEk dakartzkien zehar lerroen tratamendua, hauen artean Bake-bidean Hezi. Egia da oso interesgarria dela gai hauek proposatzea, jakituria eta kulturaren diziplina klasikoak ez diren gaiak jorratzea proposatzen den aldetik. Baina ikuspegi berri hauek zehazterakoan zailtasun dezenterekin egiten dugu topo: askotan errekurso didaktikoak falta dira, edo ez dakigu gaiak zehaz-mehatz nola jorratu, bestetan mentalitate klasikoagoa duten irakasleen borondaterik eza.

Inongo dudarik gabe azken urteotan gorakada handia izan dute bakearekin erlasionaturiko baloreak bultzatu nahi dituzten kanpainen, adibide gisa urtarrilaren 30ean bakearen eskola eguna ospatzea aipa genezakeelarik. Kanpaina hauetan gela barruko zein kanpoko ekintzak burutzen dira, baita zentrutik kanpora ere. Are gehiago, zera lortzen ari gara, pixkanaka-pixkanaka kanpaina hauen bidez alor guztietako

irakasleak inplika daitezela, gai hauek etika edo erlijio esparruko irakasleei soilik dagozkiela dioen eskema zaharra atzean utzita, ekintza diziplinartekoak programatuz. Dena den, kanpaina hauek osoro positiboak diren arren, hutsetik garatu direnean batik bat, Bakerako Hezkuntzaren eginkizuna ezin da unean uneko ekintza baten programaziora mugatu, lan jarrai eta etengabea eskatzen baitu, hau da, kanpaina hauek hasiera puntu onak izan daitezke, baina ezin dira inondik inora helmuga puntu izan. Kanpaina zehatz hauetatik aparte kurtso edo etapa osoan zehar luzatzen den egitasmo plan bat gauzatu behar da, kontzeptu "tradizionalekin" era natural eta logikoz bat egiten duten ekintzak programatuz, aurrean ezin daitezkeen eta espero ez diren egoerei irekirik egon behar dugula ahaztu gabe, mementu garrantzitsuak baitira zenbait balore erakutsi eta indartzeko.

Argi dago, horrenbestez, zehar lerroek, eta Bakerako Hezkuntzak zehazki, pertsonak osotasunean hezteko eta mundu zuzen eta solidarioago bat sortzeko orduan ahalbide handiak eskeintzen dituztela, hauexek hezkuntz curriculumean eta zentruaren ohiko bizitzan konkretatzeko zailtasunak ere begi bistan daudelarik. Honexegatik, gida gisa erabil daitezkeen hainbat ildo proposatu nahi ditugu:

- ◆ Lehendabizi, zentru bakoitzean hezkuntza komunitateak zera erabaki behar du, zeintzuk izango ote diren euren hezkuntzaren baitan egongo diren oinarrizko baloreak, eta hau zentruaren hezkuntz proiektuan (PEC) jaso beharko da, kontestuaren analisia, zentruaren identitate zeinuak eta beronen helburuak eta instituzioaren antolaketa-egitura ere bildu beharko dituena. Puntu honetan interes handiko gerta daiteke gurasoen inplikazio maila erabakitzea.

- ◆ Bigarrenik, gai hauek zentruaren proiektu curricularrean (PCC) zehaztu behar dira, etapa eta arlo curricular bakoitzari dagozkion helburu nagusi, antolamendu eta eduki, metodologia eta ebaluazioen sekuentziazioa

definituz, interdisziplinariotasunari arreta berezia eskainiz.

- ♦ Azkenik, ikasgelen programazioa da zehaztapen honen azken pausua.

Badira bi aspektu aipagarri dagoeneko jaso dugunaren artean: zentruaren antolaketa (PEC) eta metodologia.

Antolaketa eta funtzionamenduari dagokionean, hauek Antolaketa eta Funtzionamenduaren Araudian (ROF) edo Barne Abiarako Araudian (RRI) bildu daitezke, transmititu nahi diren baloreen oinarrian eraikiak izan diren eta zentruko elkarbizitza antolatzen duten araudien bidez. Behar beharrezkoa da ikasleak oinarrian balore hauek daudela ikustea, are gehiago batera eginiko aurre hausnarketa batek arau bakoitzaren atzean bultzatu nahi den balorearen existentzia ikusi eta barneratzen lagunduko dio. Zentzu honetan onuragarria izango litzateke ikasleek neurri batean eskola araudiaren sorreran parte hartzea, dela araudi orokorrean, dela ikasgeletako jokabidea batez ere zuzentzen duena. Kontestu honetan, famili giroa atalean genioen bezala, autoritatearen erabilerak bestelako zentzua hartzen du.

Argi dago geure ikasgela eta zentruetan egunero makina bat auzi sortzen direla. Arestian esan dugunaren ildotik, hauei positiboki aurre egiteko gai izan behar dugu, komunikazioa, partehartzea, elkarrenganako begirunea, elkarriketa, enpatia eta gatazkei erantzuteko bide kreatiboak sortzeko gaitasuna suspertuz. Era berean, argi dago batzuetan araudiari lotu beharko gatazkaizkiola, baina ez ohituraz darabilgun instrumentu koaktibo eta zigortzaile gisa, baizik eta hezkuntza komunitateak aukeratutako baloreak babestu eta bultzatzeko onartua duen araudi bidegile bezala.

Oro har, demokrazia giroa sortu behar da zentruan, autonomia, errespetu, berdintasun, elkartasun, integrazio eta

elkarrizketa eta akordiorako alde zuzeneko joera indartuz.

Azpimarratu nahi dugun beste kontu bat metodologiarena da, PCCan jasota datorrena. Bakerako Hezkuntzak zera behar du, gaineratu behar diren kontzeptu espezifikoek gain, ildo beretik aurreratzea ahalbideratuko digun metodologia bat bultzatzea. Zehar lerroa horrek "zenbait gairen gainean une zehatz batean baino ez hitzegitea" bihurtzeko arriskua dago, bien bitartean ikasleen artean konpetitibitatea, sari-zigor dinamika, errespetu falta, elkarrizketarik eza, ikasle eta irakaslearen arteko konfidantza falta eragiten duten jarrerak bultzatzen direlarik. Sarritan gizartean ohiko diren eskemak errepikatu besterik ez da egiten, irakasle eta ikasleen artean harreman zeharo bertikala garatuz, eta hartara ikasgela eta zentrua oro har, balore berriak eta egiteko eta funtzionatzeko modu berriak esperimintatzeko leku aparta bihurtzeko aukera galduz. Honenbestez ezinbestekoa da, lehenago aipatu dugun ezkutuko curriculum horretaz ari garelarik, Bakerako Hezkuntzaren baloreekin koherentea den metodologia bat garatzea. Bestela, ikasgelan hainbat gai eta kontzeptu unean-unean tratatzen saiatzea ez da saiakera idorra soilik izango; saiakera okerra ere izan liteke.

Hau guztia dela eta, metodologiak induktiboa, zuzena, motibatzailea, aktibo eta esperimentalak izan behar duela deritzogu, irakaslearen interesetan oinarritua.

### 5.3. Oinarri psikopedagogikoak

**A**zkenekoz, hezkuntza ekintza zuzendu behar duten hainbat hastapen psikopedagogiko aipatzea gustuko genuke, irakasleari dagokionez zein irakasleari, Bakerako Hezkuntzaren ikuspegitik:



### 5.1.3. Irakasleen partaidetza

- ◆ Irakasleak irakasten duenaren eta zentruaren inguruan egiten dituen kritikak onartzeko besteko ausardia izan behar du.

- ◆ Inkonformismo eta erantzukizunez eramandako desobedientzian hezten jakin behar du, jarrera kritikoa garatuko duena.

- ◆ Ezinbestekoa ez dela onartzen jakin behar du: irakasle ona ikasleak berarekiko dependienteak ez izatea lortzen duena da.

- ◆ Ezkutuko curriculumarekin koherente jokatu behar du: egunez egun egiten duenaren eta esaten duenaren arteko koherentzia zaindu behar du.

- ◆ Ikasgelan giro positiboa sortu behar du, bi norabidetako prozesuak eragiten dituzten komunikazio egoerak sortzen jakin behar du.

- ◆ Ez du boterean oinarrituriko jerarkiarik sortu behar; ezin du bere hitza beldur, koakzio, oihu edo mehatxu bidez inposatu.

- ◆ Dena ezin daitekeela eskolan konpondu jakin behar du, eraginkortasun garrantzitsuko beste ingurune batzuk ere existitzen direla onartuz.

- ◆ Sozializazio egoki baten oinarri diren elkarbizitza, tolerantzia eta errespetua bultzatzen dituzten jarrerak gogotik indartzen jakin behar du.

- ◆ Irakasleen agresibitatea bideratzen jakin behar du, berau ez baita berez txarra, euren garapen indibidual eta sozialean aurrera jotzeko duten energia baizik.

- ◆ Ikasgelan sortzen diren auziak irudimenez eta modu positiboan ebazten jakin behar du.

- ◆ Auzi horietan epaile modura hartu behar du parte, baina ikasleak parte hartzera bultzatuz eta ez moralez beteriko juzkuak egitera mugatuta.

- ◆ Aniztasuna aberastasuntzat jo behar du eta ez oztopo edo liskar iturritzat.

### 5.3.2. Ikasleak ere partaide

♦ Beharrezkoa da ikaslearen aldetik parte-hartze aktibo bat, bere ikaste prozesu propioa eraiki ahal dezan eta komunikatzeko eta autogestionatzeko gaitasuna lor dezan.

♦ Injustizien aurrean gogotsu eta konprometituri agertu behar du.

♦ Injustu irizten dien arauen aurrean kritiko agertu behar du.

♦ Bere harremanak beste pertsonetikiko komunikazio eta errespetuan oinarritu behar ditu.

♦ Bere autoestimazioa garatu behar du, besteen iritzi eta jarrerak mehatxagarritzat ez jotzeraino.

♦ Bere gaitasunak baloratu behar ditu, baina inoiz ez besteen artean gailentzeko elementu gisa.

♦ Besteek diotena gogotik entzuten ikasi behar du, besteak esan nahi duena ulertzen saiatuz.

♦ Aniztasuna ez du mehatxu bezala ikusi behar, mugarik gabe aberasteko aukera bezala baizik.

♦ Gatazkak irudimenez, modu baketsu eta tolerantean ebazten ikasi behar du.

## 6. Geure herriaren egoera

**O**rain arte modu orokorrean aipatutako guztiak gure ingurunean ere baliokotasun oso osoa du. Baina azken hiru hamarkadetan gure herriak pairatu duen, eta mila bizitza suntsitu dituen zuzeneko biolentziak utzi dituen arrasto espezifikoek gure gizarte taldeari ematen dioten berezitasuna begibistakoa da.

### 6.1. Egoera eskasa

**G**ure gizartean asko dira bide biolentean euren helburuak lortzeko modu bat ikusi duten gazteak, eta ez gara gai izan gazte hauei bestelako bide onargarri bezain gizatiarrik eskeintzeko. Gainera, talde honen baitan, gizarteak baloratzen ez dituen kontestuan hazitako gazte asko aurkitzen dira. Honen ondorioz ez dute behar adinako autoestimaziorik lortu, izaera bortitzeko taldeentzat harrapakin bihurtu direlarik, talde hauek protagonismo biziago bat eskaintzen baitiete, euren autokontzeptua indartuz.

Beraz belaunaldi aldaketa baten aurrean gauden honetan, biolentziaren tradizioari segida eman ordez, inoiz baino beharrezkoagoa egiten da gazte koskor hauek indarkeriarik ezaren kulturaren hezteak.

Hamarkada luzeetan zehar gure lur honetan, munduko beste hainbat lurralderekin solidaritatea eta justizia landu egin da, baina ahaztu edo ez da ikusi nahi izan, gertuen eta ikuspegi objektiboenetik zailen izan dugun gatazka. Urteetan beldurrak eragotzi digu kafetegietan, kaleetan, ikasgeletan ETari buruz hitzegitea. Existitzen den arazo bat isiltzen dugunean enkistatu besterik ez dugu egiten, bere konponbidea eta gainditzea zailduz.

Ez ditugu aintzat hartu, ez dezagun ahaztu, terrorismotean jaio eta hazi diren belaunaldiak. Ez diegu honi buruz eztabaidatzeko aukerarik eman; besterik gabe alde batera laga ditugu, honela bustiko ez zituelakoan. Baina biolentziaren kulturak gizartean uzten dituen lorratz eta eraginak, sirimiria bezala zirrikitu guztietatik filtratzen dira, balore, jarrera eta harreman guztiak bustiz.

Arestian aipatu dugun bezala, asko dira kultura honen transmisioan parte hartzen duten tartekoak. Zera azpimarratu nahi dugu, bereziki, komunikabideen betekizuna. Izan ere,

sarriegi, balore negatiboen transmisore bihurtzen dira, dela edukitzaileagatik, dela edukiagatik. Era berean, politikariak krispazio sozialaren erantzule dira, neurri handi batean, eztabaida anitz, lasai eta konstruktiboa galarazten duen hizkuntza deskalifikatzaile eta oldarkorregia erabiltzearen.

## 6.2. Zenbait balore berri

**B**akerako Hezkuntzak gurea bezalako gizarte batean zera esan nahi du, harturiko balore negatibo hauei bake kultura bultzatzen duten balore berrien bidez aurre egitea:

- ◆ Biolentziaren erabileraren justifikazioaren aurrean, biolentziarik eza hobestea, bizia eta pertsona guztien segurtasunerako eskubidea.

- ◆ Etsaiaren irudiaren aurrean, eta honek dakarren gorrotoaren aurrean, aniztasuna eta ezberdin pentsatzen dutenenganako errespetua onartzea, nahiz eta bere ideiak, sinesmenak edo ideologia ez partitu.

- ◆ Norberaren bandokoentzako eskubideak exigitu baina besteei ukatzeak erakusten duen moral bikoitza gaitzetsi, indarkeria berez baita gaitzesgarria eta ez pairatzen duenaren arabera. Pertsona ororen duintasuna onartu, bere jatorria albo batera utzita, eta giza eskubideen izaera unibertzala onartu.

- ◆ Ezberdin pentsatzen duenarekin elkarbizi behar izatea ez oztopotzat jo, aniztasuna aberastasuna baita.

- ◆ Ezin da indarkeriara ohitu, etengabe agertu behar da berarekiko konformagaitz, bere aurka lan eginez, gertuenekoetatik hasiz, biolentziarik gabeko etorkizunaren alde, hau sufritzen duten guztiei geure elkartasun amaigabea erakutsiz.

- ◆ "Egia bakarra" dutelako ustea aldarrikatzen duten

jarrera itxi eta mugiezinak baztertu, elkarrizketa/eztabaida kultura batez ordezkatzeko, maila politiko zein sozialean, beste elkarrizketakidea baliozkoa dela onartuz.

## 6.3. Gatazkak bereizi behar

**B**akearen aldeko **Koordinakundeak** azken urteetan aldarrikatu dituen tesietariko batek zera dio, gure gizartean koexistitzen duten gatazka bortitz eta politikoak ez dutela nahitazeko erlaziorik, eta honexegatik bereizi beharra dagoela. Izan ere, badira sektore batzuk gatazka politiko baten existentzia defendatzen dutenak subirautasunaren inguruan, baina borroka armatua metodo bezala, inongo ezpairik gabe gaitzesten dutenak helburu hau defendatzeko. Honenbestez bi konfliktuen arteko beharrezko erlazioa baiesten duten bakarrak MLNVaren ingurukoak dira. Zentzu honetan beti esan izan dugu ez dagoela gatazka politikoari aurre egin beharrik biolentzia egoera hau konpontzeko, baina era berean, egoera honek berdin diraelako ez diogu auzi politikoei buruz eztabaidatzeari zertan utzi.

Gauzak honela, oso beharrezkotzat jotzen dugu gizarte osoa heztea, baina batik bat gazteenak, argi izan dezaten bortizkeriaren erabileraren kontua, nahiz eta erro sakon politikoa izan, arazo etikoa dela: justifikagarria al da pertsona bat erailtzea helburu jakin batzuk lortzeko? Eta printzipio honek beste guztien gaintik egon behar du: gizaki guztiek duten bizitzeko eskubidea ezin da dudatan jarri gatazka politiko bati irteera eman ahal izateko. Erailtzea edo ez erailtzea, biolentzia justifikatzea edo ez egitea, zerbait lehenagokoa da, pertsona ororen duintasunaren onespeneratik datozen inorenganaezineko balore etikoen gain eraikitako jarrera bat da.

Jakina, honek ez du esan nahi badiren arazo politikoak ahaztu behar ditugunik. Aitzitik, hain zuzen ere, helburua bizi diren gizartearen arazo politiko eta sozialekin arduratuta dauden hiritar erantzule, gogotsu eta kritikodunak heztea da, balore demokratikoak zerbait bizidun, dinamiko eta guztiona bihurtu behar ditugula ziurtzat emanaz.

## 6.4. Elebitasun tolerante eta aberasgarria

---

**G**ure gizartearen aniztasunaren ondorio den elementuetariko bat tradizio kultural ezberdinen koexistentzia da. Hala ere, aberastasun eta osatzailetzat jo beharko genukeen hori, sarritan, liskar iturri bihurtzen da, bereziki kultura bat bestearen antitesizat ikusten denean, bestea erasotzat jotzen dugunean edo elkarbizitzarako ezgaitzat.

Hau oso argi ikus daiteke hizkuntzaren kasuan. Euskera-gaztelera, gaztelera-euskera, etengabeko auzi iturri diren binomio bihurtzen dira. Berez, aurrez aurre aurkitzen diren bi izaki balira bezala, pertsona bakoitza bata ala bestea hartzera behartuz, bi bando balira bezala, eta bietariko batean soilik egon daiteke pertsona bakoitza.

Hizkuntzaren arazoa ezin daiteke arma erasokor gisa erabili interes politiko zehatz baten izenean, ezta jarrera intolerante eta liskartuen sortzaile bezala. Gure hezkuntz sistematan hizkuntza eredu ezberdinak izateak ez du gizartearen banaketa islatzen, baizik eta hizkuntza eredu aukeratzeko orduan ere anitza dela erakusten du.

Beharrezkoa da elebitasuna aberasgarria dela ikustea, inposaketa eta debekuetatik urrun pertsonak elkar aurkitu eta elkarbizitzarako erabil dezaketen elementu gisa. Liskarra sortu

beharrean, estimua garatzen ikasi behar dugu, hizkuntza bakoitzaren aberastasuna aurkitzen ikasi, bere idiosinkrasia eta espezifikotasunarekin. Ez dugu ahaztu behar hizkuntzaren betebeharrak nagusia, darabilen kodearen gainetik, pertsonen arteko komunikaziorako instrumentu izatea dela. Honenbestez, inongo hizkuntza ezin da alderdikieriaz erabili, honela, bere berezko helburu den komunikazioa oztopatzeko instrumentu bihurtuz.

## 6.5. Hezkuntza ez neutrala

**A**restian adierazi dugun legetxe, egun, hezkuntzaren oinarriko ezaugarrietako bat bere konplexutasuna da, hezkuntza, noski, bere osotasunean ulertuta, ez eskola giroan soilik. Konplexutasun hori handiagoa bihurtzen da arazo-multzo jakin bat bizi duten gizarteetan. Euskal gizartearen kasuan, hezkuntz esparru ezberdinek beren baitan biolentzia iraunkorraren efektu gaizto berbera birsortzeko arriskua dute. Inguramendu honetan zail egin da gurasoen, komunikabideen, gizarte-asoziazioen eta batik bat irakaslearen ikuspegitik aurre egitea problematika honi. Honek zera eragin du sarritan, neutraltasunean kokatu izan gairela, hau da, inhibititu egin gairela, arazoari buruzko mentzio oro eragotziz, eta honela gaiaren inguruko analisi eta eztabaida isilaraziz.

Gatazkak hazkunde pertsonal eta sozialaren bultzatzaile direla jakinda, zera irizten dugu, hezkuntza ezin daitekeela neutrala izan, are gutxiago aurrean dugun egoerari begira. Ez da inola ere norbanako jakin baten konbentzimendu sakonekin inor adoktrinatzetik bilatzen, saihestu beharra dagoena, baizik eta gutxieneko etiko unibertsalekin zerikusia duten kontuen aurrean ez ur ez lur ez agertzea bilatzen dugu, oinarriko erreferentziatzat giza-eskubideak izanik. Honela

bada, terrorismoaren gaitzespen argi eta ulergarri adierazi behar dute hezitzaileek, jarrera hau gizaki orori onartzen zaizkion eskubideetarikoa edozein zapaltzen den egoera guztietara luzatuz.

## 6.6. Biktimgenganako enpatia garatu

**B**ake-bidean Hezik garatu behar duen gaitasunetarikoa bat beste pertsonaren lekuan jartzeko gaitasuna da, bestearengandik banantzen gaituen ezberdintasuna gaindituz. Edozein gizartetan enpatiarako gaitasun hau garatzea garrantzitsua bada, are gehiago izango da gure egoeran, sarritan egoerak hain kontrajarriak dira-eta. Are zehatzago, enpatia hau guztiz nahitaezkoa da biolentziaren biktima zuzenen gizataldearentzat. Eta, hala ere, gutxitan izan da gizartea gai benetan bizi duten egoeraz jabetzeko.

Biktimgenganako gertutasun soziala asko indartu dela egia bada ere, behar beharrezkotzat jotzen dugu hezkuntzatik enpatiarako gaitasuna bultzatzen eta indartzen duten metodologia eta programak lantzea, kolektibo honekiko bereziki. Honekin zera lortu nahi da, norberaren ideologia berekoak direnentzako eskubideak ontzat ematea eta besteei ukatzea onartzen duen moral bikoitza haustea. Honetaz gain, sufritzen dutenenganako jarrera solidarioak lantzea garrantzitsua da, gizaki bezala batzen gaituena azpimarratuz, sentimenduak, hain zuzen ere. Pertsona hauek gauza bezala ez ikustea behar-beharrezkoa da gaitasun enpatikoa garatu ahal izateko.



# 7. Ondorioak

Laburpen modura eta agiri honen bidez aportatu nahi izan ditugun oinarrizko hainbat puntu azpimarratzeko asmoz Bakearen aldeko Koordinakundeko Bake-bidean Hezi Batzordeak honako ondorioak mahairatzen ditu:

1. Bake-bidean Hezi gaur egun Bake Kultura eraikitzeko oinarrizko tresna bat da. Osoko zeregina da gizarte osoari zuzedua baitago; konplexua, parte hartzen duten eragile guztiak direla medio; efengabea eta egunerokoa, ez baita beharizan edo egoera puntualekoa.

2. Biolentzaren kulturaren aurrean, beharrezkoa da Bake Kulturari eutsiko dioten balore berriak bultzatzea giro guztietatik, ez soilik eskola girotik, eta oinarrizko hastapenak pertsona ororen duintasuna izanik.

3. Bilatzen dugun bakea zuzeneko biolentziarik eza baino kontzeptu aberatsagoa da, biolentzia estruktural eta kulturalik ez egotea ere aldarrikatzen duena.

4. Gatazkaren sormenezko ikuspegia indartu behar dugu, zeinek, bizitzari berezko zaion prozesutat jota, modu positiboan ebazten lagunduko digun, garapen pertsonal, sozial eta hezitailerako elementu aberasgarri bihurtuz. Elkarrizketa da edozein arazori aurre egiteko modurik onena, baita geure herriarenari ere, enpatia eta aktiboki entzutea oinarrizko jarrera direlarik.

5. Famili giroa, lehen urteetan batik bat, garrantzi handiko giroa da gizarteratze prozesuan, baloreak koherenteki eta bizipen moduan transmititzen diren heinean. Honexegatik

gurasoek ezin dute euren betebeharrak hezitzailea irakasleengan edo bestelako giroetan eskuordetu, ordezka ezin daitekeen atala baitira umeen hezte prozesuan.

6. Bestalde, eskola Bakerako Hezkuntza garatzeko ingurune aparta da. Bere zehar lerroak, zentruaren antolamendua eta metodologia bezalako arloetatik bultzatu behar baita, beti ere zereginaren konplexutasuna eta irakasleen konpromiso beharra gogoan izanik.

7. Era berean, gure herri honetan beharrezkoa da gatazkari modu konstruktiboan aurre egitea, hainbeste urtetan itsatsi zaigun indarkeriaren kultura arbuaituz eta belaunaldi gazteenetan biolentzia eza eta tolerantzia bezalako baloreak ereinez.

8. Bakerako Hezkuntza ez da kontu teoriko hutsa, eta ez da alor profesionalera mugatzen den zerbait, esperientziaren eta bizipenaren bidez lortzen den dimentsioa da, bizimodu bihur daitekeen jarrera bat, alegia.

9. "Ez bazara soluzioaren zati, arazoaren zati zara" esaldi honek egoera gatazkatsuetan inplikatzeko behar dugun motibazioa islatzen du, euren ebazpen positiboan konprometitzeko eta gizarte toleranteagoa sortzeko behar dugun balore alternatiborik ba ote dugun peskiza egiteko.

10. Honengatik guztiagatik behar beharrezkoa da guztion parte-hartzea, arauturiko hezkuntzaren barruan zein kanpoan, jarraituz bultzatzen gaituen sakoneko iritzi sendo bat baitugu: eskeini dezakegun guztia, huskeria iruditu arren, mundu berri bat, Bake Kultura bat eraikitzeko betebeharrak konplexu baina beharrezko honetan, laguntza paregabe eta baliotsua da.

**AGENTEAK**

- erakundeak
- alderdi politikoak
- komunikabideak
- eskola
- familia
- Eliza
- elkarreak eta mugimendu sozialak
- kirol eta kulturaren liderrak

